

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

365

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 13koa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko ekainaren 27ko Aginduan ezarritako laguntzak 2019ko ekitaldian jasoko dituzten erakunde onuradunen zerrenda; aipatutako agindu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzaileentzako babes-laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten da 2019ko ekitaldirako.

Dirulaguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela-eta, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko ekainaren 27ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, ebazpen honen bidez onuradunen zerrenda argitaratuko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzaileentzako babes-laguntzak iragartzen eta arautzen dira 2019ko ekitaldirako.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko ekainaren 27ko Aginduan ezarritako laguntzei dagokienez, 2019ko ekitaldian onuradun izan diren erakundeen zerrenda argitaratzea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzaileentzako babes-laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten da 2019ko ekitaldirako.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 13a.

Industriako sailburuordea,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.

2020ko urtarrilaren 27a, astelehena

ERANSKINA

Entitate onuraduna	Diru-kopurua
«ACICAE» Euskadiko Automobilgintzaren Kluster Elkarte	220.122,00
«ACLIMA» Euskadiko Ingurumen Industrien Kluster Elkarte	129.064,00
«AFM» Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Tresna Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte	409.166,00
«AFV» Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urtzaileen Elkarte	221.328,00
Euskadiko Elikaduraren Klusterra Enpresa Elkarte	58.504,00
«BHC» Basque Health Kluster Elkarte	94.738,00
«UBCP» – Uniport Bilbao Portu Erkidegoa	253.760,00
Euskadiko Paperaren Kluster Elkarte	65.288,00
Energiaren Kluster Elkarte	295.744,00
«Eraikune» Euskadiko Eraikuntzaren Kluster Elkarte	85.538,00
Euskal Itsas Industria Sustatzeko Elkarte (Euskal Herriko Itsas Foroa)	223.850,00
«GAIA» Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkarte	296.508,00
«HABIC» Habitat, Egur, Bulego eta Contract-eko Sektorearen Kluster Elkarte	234.472,00
«HEGAN» Euskadiko Aeronautika eta Espazioaren Kluster Elkarte	140.396,00
«MAFEX» Treneko Material, Ekipo eta Zerbitzuen Espainiako Fabrikatzaileen Elkarte	102.216,00
«SIDEREX» Siderurgia produktu eta Instalazioen Esportatzaileen Espainiako Elkarte	137.306,00
Guztira	2.968.000,00